

OSASUN SAILAREN ETA OSAKIDETZAREN GOMENDIOAK EAE-KO ZENTRO SOZIOSANITARIOENTZAT

EAEen koronabirus bidezko infekzio-kasuak agertu direnez eta infekzio-eragina handituko dela aurreikusten denez, Osasun Sailak eta Osakidetzak honako gomendio hauek eman nahi dizkiete EAEko zentro soziosanitarioei, egoiliarren kalteberatasun berezia dela eta.

ZERGATIK DIRA BEHARREZKOAK GOMENDIO HAUEK?

Ingurune itxi batean adineko pertsonak eta desgaitasunen bat duten pertsonak edukitzeak kutsatzeko arriskua areagotzen du arnasbidez transmititzen den edozein gaixotasunetarako. Adineko pertsonak arnas gaixotasun arruntetarako arrisku-kolektiboa direnez, beharrezkoa da prebentzio-neurriak hartzea.

Beraz, behean azaldutako gomendioen **HELBURUA da asistentziako langileak eta ospitalizatutako pazienteak babestea.**

NOLA ERAGITEN DU KORONABIRUSAK?

Koronabirusak gripearen birusen oso antzeko profila du alderdi askotan (transmisioa, erikortasuna/hilkortasuna). Komorbilitatea duten adin handieneko pertsonak dute arrisku handiena infekzioa hartzen badute. Immunitaterik ez dutenez, litekeena da infekzioa izatea birusarekin kontaktuan jartzen badira.

Geure osasunerako arriskua saihesteaz gainera, osasun-profesionalek arreta handiz ibili behar dugu gure pazienteei birusaren infekzioa ez transmititzeko.

NORENTZAT DIRA GOMENDIO HAUEK?

Zentroen erabiltzaileen senideak eta/edo bisitariak

- Edonork sukarra edo arnas sintoma akutuak baditu, ez du bisitarik egin beharko.
- Ospitalizatutako paziente bakoitzeko, senideen bisitak 1 pertsonara mugatzea gomendatzen da. Laguntzaileek ez dute sukarrik izan behar, ezta arnas sintoma akuturik ere.

COVID 19k sorrarazitako salbuespen-egoerak irauten duen bitartean, une honetan arriskua minimizatzeko neurri orokorrak dira.

Zentroen erabiltzaileak

- Arnas sintoma akutuak (eztula, eztarriko mina edo arnasa hartzeko zailtasunak) edo sukarra dituzten **eguneko** arreta-zentroen erabiltzaileak ezin izango dira zentrorara joan.
- Erabiltzailearen batek sintomak baditu eta arrisku-eremuetara bidaiatu duen norbaitekin harremana izan badu, Osakidetza Osasun Kontseilura deitu behar du: 900 20 30 50. Ondoren, Osasun Publikoak kasua positibotzat jotzen badu haiek erabakiko dute zein urrats eman behar diren jardun- eta isolamendu-protokoloaren arabera —egoera eta inguruabarretarako kontingentzia-plan egokia egitea ekarriko protokolo horrek—. Kasu

horietan, halaber, protokoloaren aurreikuspenak gauzatzeko behar diren baliabideak eta materialak ere baloratuko dira.

- Erabiltzailearen batek sukarra eta/edo arnas sintoma akutuak baditu, egoitza-zentroan kasu horietarako indarrean dagoen jardun-protokoloa aplikatuko da, baita dagokion asistentzia-zuhertasuneko arauak ere. Hala, eremu komunak saihestuko dira eta erabiltzaileen egonaldia beren logelara mugatuko da.

Zentroetako profesionalak

- Eskuen higienarako neurriak zorrotz betetzea (urarekin eta xaboiarekin garbitzea), bai pazienteen artean, bai eremu komunetan gainazalak ukitu aurretik eta ondoren. Eremu horietan artean daude kontsultategiak, bilera-gelak / txostenen gelak, sendaketa-gelak, erauzketa-gelak edo erabilitako ekipo informatiko komunak.
- Profesionalek maskara kirurgikoa erabili behar dute arnas klinika duten pazienteekin kontaktuan daudenean (koronabirusaren susmorik ez izan arren).
- Arnas klinika duten paziente guztiei maskara kirurgikoak erabiltzea gomendatuko zaie.
- Osasun Publikoak identifikatu eta berretsiko ditu koronabiruseko kontaktuak edo positiboak diren profesionalak edo pazienteak. Gainera, horien jarraipena egingo du, eta zentroak hark zehaztutako jarduera-protokoloak jarraitu beharko die.
- Sukarra edo arnas klinika akutua duten profesionalak ez dira beren lanpostura joango, eta OPU Oinarritzko Prebentzio Unitatearekin (Lan Osasuna) harremanetan jarriko dira. Osasun Zerbitzuan baja telefonoz emango da.
- Profesionalek edo ospitalizatutako langileek hartu beharreko neurrien berri izango dute, eta Osasun Publikoaren eta Oinarritzko Prebentzio Unitatearen (OPU) kontrolpean egongo dira.
- Prestakuntza: segurtasun-neurriak buruzko prestakuntza eta prebentzio-alderdiekin lotutako teknika zehatzak (eskuen higiena...) online eskuragarri egongo dira Osakidetza aipatutako esteketan.

Zentroko arduradunak

- Zentroko Zuzendaritzak profil hauek dituzten profesionalak identifikatuko ditu (pertsona berarengan rol bat baino gehiago eman daiteke), zentroan bertan gerta daitezkeen gorabeherak kudeatzeko talde bat antolatzeko:
 - Zuzendaria.
 - Langileen eta ordezkapenen kudeaketaren arduraduna.
 - Karteldegien arduraduna.
 - Medikua, edo zentro bakoitzeko goi-mailako osasun-profila.
 - Laneko segurtasun- eta osasun-arduraduna.
- Zentroaren asistentzia-egitura zehatza bidali beharko da, honako hauen erreferentziarekin: medikuak (Osakidetzakoak edo propioak), erizainak (Osakidetzakoak edo propioak) eta gerokultoreak.
- Arreta berezia jarri beharko da erabilera komuneko eta joan-etorri sarrietako eremuen garbiketan eta desinfekzioan.
- Prestakuntza-egutegi bat ezarri beharko da, asistentziako langile guztiek segurtasunaren eta prebentzioaren arloko prestakuntza jasoko dutela ziurtatzeko.
- Osakidetza emandako informazio-kartelak ikusgai egongo diren zentroko hainbat lekutan jarri beharko dira, erabiltzaileei, langileei eta bisitariei oinarritzko prebentzio-neurrien berri emateko:

- Eskuak sarritan garbitu.
- Eztul edo doministiku egitean, estali ahoa eta sudurra ukondoarekin edo zapi batekin. Bota zapia berehala eta garbitu eskuak alkohol-oinarria duen eskuetako desinfektatzaile batekin edo ur eta xaboiarekin.
- Mantendu metro bateko tarteak, gutxienez, eztul edo doministiku egiten duten edo sukarra duten pertsonengandik.
- Ez ukitu begiak, sudurra eta ahoa.

LAGUNTZA-MATERIALAK

Laguntza-materialak gehitzen dira, hala nola: kartelak herritarrentzat, kartelak profesionalentzat (positiboak edo positiboen kontaktuak daudenerako) eta Norbera Babesteko Ekipamenduari buruzko bideoa.